

**BEParke**

bizi parkea  
feeling parke  
vive el parke

**Bezeroen  
Gogobetetasunari  
buruzko 2022ko  
Inkestari dagokion  
txostena**

Abanto



Leioa



Zamudio / Derio



Donostia



Hernani



Bilbao



Vitoria -Gasteiz



Ortuella

Hondarribia

**Parke**

EUSKADIKO  
PARKE  
TEKNOLOGIKOAK

- 1.2022ko inkestaren garapena
- 2.2022ko ekintzen laburpena
- 3.Gogobetetasunari buruzko 2022ko inkestaren emaitzak
- 4.Ondorioak → Ekintza plana
- 5.Eranskina: Emaitza zehatzak

Euskadiko Parke Teknologikoen Sareak (aurrerantzean, EPTS) 2024ko Plan Estrategiko berria abiarazi du 2021ean. EPTSren balio-proposamenaren oinarrietako bat “abangoardiako espazioak eta azpiegiturak eskaintzea da, baita erreferente nahiz zerbitzu bereizgarriak ere, kalitate goreneko lan-ingurunea eratzeko”. Horretarako, balio handikoa da gure bezeroen iritzia ezagutzea.



**Helburua** : Euskadiko Parke Teknologikoen Sareko ( EPTS) bezeroen gogobetetze -maila ezagutzea.



**Galdetegi** kontrastatua eta sistematikoki hobetua; 1997az geroztiko joerak daude eskuragarri.



2022ko berrikuntza nagusiak : Balio Erantsiko Ekintza eta Zerbitzuekin (gaur egun Zerbitzu Espezializatuak izenekoak) eta Zerbitzu Orokorrekin lotutako galderak Parkeetako Zerbitzuen izendapen/ *naming* eta egituraketa berrira egokitzea.



**Parkeetan % 24,27ko (-23,8) partaidetza** lortu da: % 34,81ekoa APTn (-33,69), % 14,18koa BPTZn (-44,28), eta % 30,90ekoa GPTZn (+11,75).

## 02. 2022ko ekintzen laburpena



ATALA	2022AN GARATUTAKO EKINTZAK
 <p><b>Enpresetara hurbiltzea</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Urteko bisita egiteko plana, Parkeetako bezeroen kezkek eta beharrak bertatik bertara ezagutzeko .</li> </ul>
 <p><b>Azpiegiturak eta eraikinak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parkeen jabetzako azpiegitura guztietan energia-kudeaketarako instalazioak monitorizatu eta digitalizatzeko proiektua idazten hasia</li> <li>• Autosufizientzia Energetikoa 2035 Proiektuaren lehenengo fasea garatzea, Parkeen jabetzako eraikinetan energia-auditoretzak eta energia-ziurtagiriak egiten hastearekin batera</li> <li>• Energia-kontsumoak murriztera bideratutako jarduerak, ekipoak teknologia eraginkorragoekin ordezkatzuz</li> <li>• Energia berriztagarrien erabilera sustatzea</li> <li>• Ekonomia zirkularreko ekimenak bultzatzea, Parkeen Jasangarritasun, Mugikortasun eta Irisgarritasun Planaren arabera, Vending zerbitzua ingurumen -pleguekin esleitzuz eta Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Euskadiko 2030 Programari atxikiz</li> <li>• Parkeetan eraiki beharreko eraikin berriak lizitzatzeko pleguetan diseinu eta eraikuntza jasangarriko irizpideak txertatu dira</li> <li>• Jasangarritasunari buruzko Sprilur-eko lantaldean parte hartzea</li> <li>• Sormen-gela berriak amaitzea . Enpresetako lantaldeak sorkuntza - eta berrikuntza -dinamikak egitera gonbidatzen dituzten aretoak dira</li> <li>• EEE,Sprilur eta IHOBE aliantzen jarraipena</li> <li>• Jasangarritasun eta Mugikortasun Planetik eta Irisgarritasun Planetik sortutako hobekuntza -ekintzak garatu eta ezarri dira</li> </ul>

## ATALA

## 2022AN GARATUTAKO EKINTZAK


**Zerbitzu bereizgarriak**

Zerbitzu espezializatuen segmentazio bat egin da, identifikatutako *target* bezeroei eskaini ahal izateko eta, horrela, identifikatutako beharrei erantzuteko.

**BEParke**

- Berrikuntza-prozesu ireki bat garatu da, EPTSn lan egiten duten pertsonen beharrak identifikatzeko, zerbitzu berriak diseinatu eta garatu ahal izateko.
- Aisialdiko eta kulturako jarduerak egin dira Euskadiko Parke Teknologikoetan kokatutako erakundeetan lan egiten duten pertsonentzat.
- Azken erabiltzailearengana iristeko hainbat mekanismo jarri dira martxan, eta pertsona askoren kontaktuak lortzea ahalbidetu dute.

**K·business**

- Inguruko beste enpresa eta eragile batzuekin negozioa garatzeko, 5 ekimen burutu dira hainbat arlotan, hala nola Energian, lasangarritasunean eta Biozientzietan. 130 enpresak baino gehiagok hartu dute parte ekimenetan, eta aldebiko topaketa ugari egin dira, akordioak eta lankidetzak eragin dituztenak.

**K·talent**

- Giza kapitala Parkera erakartzeko eta gure enpresen talentua garapen profesionalaren eta bokazio zientifiko-teknologikoen sustapenaren bidez fidelizatzeko, zazpi ekimen burutu dira arlo horretan, eta 2.400 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte.

**K·impulse**

- Enpresei hazten, ikusgarriagoak eta aintzatetsiagoak izaten, merkatura arrakastaz iristen, merkatu berriak lortzen eta kanpoan Parke balioen erreferente izatea lortzen laguntzeko, 9 topaketa burutu dira finantza-eragileekin (Eusko Aurlaritza, aldundiak, CDTI, arrisku-kapitala...), eta 360 enpresak baino gehiagok hartu dute parte.

**K·future**

- Gure enpresek paradigma teknologikoen aldaketei eta ekonomiaren erronka digital berriei aurrea hartzeko zerbitzuen garapena. Lantaldeak eta prestakuntza-ekintzak garatzea hainbat esparrutan, hala nola Errealitate Birtualean, konputazio kuantikoan, Big Data, eta abar. Horietan, 220 enpresak baino gehiagok hartu dute parte.

**K·Media**

- Parkeetako enpresen jarduera zabaltzeko eta erakartzeko estrategia indartzeko eta talentuaren eta berrikuntzaren euskal ekosisteman duten posizioa sendotzeko zerbitzu bereizgarria. Parkeetan kokatutako enpresen proiektuak ikusarazteko, 326 albiste argitaratu dira (2021ean baino % 28 gehiago), 22 buletin digital kaleratu dira parkeen berrikuntza nagusiei buruzko informazio-fluxua aktibo mantentzeko, eta, gainera, 17 prentsa-ohar egin eta zabaldu dira, 106 inpaktu zuzen eragin dituztenak.


**Zerbitzu orokorrak**

- Komunikazio-sistemak hobetzea, teknologia berriak txertatuz, 5G esaterako.



## ATALA

## 2022AN GARATUTAKO EKINTZAK

**Azpiegiturak eta eraikinak****Azpiegiturak eta Eraikinak**

- E9-Marie Curie eraikina abian jartzea eta egokitzea enpresak ezartzeko
- Haizearen Tunela martxan jartzea
- Sormen Gela Parkeko E6 Eraikinean
- E4 eraikina birgaitzeko proiektua idazten hastea

**Jasangarritasuna/Irsgarritasuna :**

- Ur-kontagailuen sarean teleneurketa sistema bat ezartzea
- Instalazioak monitorizatzeko eta digitalizatzeko proiektu bat idazten hastea, Parkearen jabetzako azpiegitura guztietan energia-eraginkortasuna kudeatzeko
- Arabako Parke Teknologikoko jabetzako eraikin guztiei auditoretza energetikoak egiten hastea
- Arabako Parke Teknologikoko Eraikin Zentralerako ureztatzeko ura hartzeko baltsan plaka fotovoltaiko flotatzaileak jartzeko lizitazioa eta ezartzen hastea
- Jasangarritasun-foroa sortzea
- Eraikin Zentralean jarduketak egiten hastea, Eraikin Publikoak Birgaitzea Bultzatzeko Programari (PIREF) dagokionez
- GJH9 Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako Aliantzaren lan-mahaietan parte hartzea

**Mugikortasuna/Irsgarritasuna :**

- Mugikortasun Foroa sortzea
- Ibilgailu elektrikoetarako karga-puntu gehigarriak ezartzeko plangintza
- Vitoria -Gasteiz eta Parkearen arteko garraio kolektiboko sistema indartzea (lotura autobusak)
- Vitoria -Gasteizko Mugikortasun Planean parte hartzea
- Irsgarritasuna hobetzea E7 Eraikineko Sarbidearen Erreformaren bitartez

**Hirigintza/Parkea handitzea :**

- Parke Teknologikoa handitzeko hirigintza -izapideetan aurrera egin da
- Araba Erdialdeko Plan Orokorrean parte-hartzea

**Zerbitzu orokorrak**

- Arabako Parke Teknologikoan esperimentazio -eremu bat sortzeko 5G Zerbitzuak ezartzeko proiektuari ekin zaio



## ATALA

## 2022AN GARATUTAKO EKINTZAK

## Azpiegiturak eta eraikinak

**Azpiegiturak eta Eraikinak :**

- Abantoko campuseko EIC/Egoitza Nagusia eraikineko obren aurrerapena
- Abantoko campusean bigarren eraikin bat eraikitzeko lizitazioa, María Telkes eraikina
- Hidrogenoa kanalizatzea Abantoko campusean, parkean energia-iturri hori hornitzeko
- BIC BIZKAIA Inkubagailuko coworking aretoa
- Sormen Gela Parkeko Eraikin Nagusian

**Jasangarritasuna :**

- Parkean ureztapena kontrolatzeko sistema ezartzea, telekudeaketa bidez
- Instalazioak monitorizatu eta digitalizatzeko proiektua idazten hastea, Parkearen jabetzako eraikin guztien energia-eraginkortasuna kudeatzeko
- Bizkaiko Parke Teknologikoaren jabetzako eraikin guztiei auditoretza energetikoak egiten hastea
- Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikorako eguzki-instalazio fotovoltaiako proiektuen lizitazioa egin eta ezartzen hastea Zamudioko Campuseko 101, 103, 205, 208, 407, 500, 502, 612+Parkinga eta 801 eraikinetan .
- Jasangarritasun-foroa sortzea
- Eraikin Publikoen Birgaitzea Bultzatzeko Programan (PIRE) aipatzen diren 100 Eraikineko eta Eraikin Nagusiko jarduketak egiten hastea
- Diseinu eta eraikuntza jasangarriko irizpideak txertatzea Abantoko campuseko María Telkes eraikinaren diseinuan

**Mugikortasuna/Irugarritasuna :**

- Ibilgailu elektrikoetarako karga-puntu gehigarriak ezartzeko plangintza
- 101 eraikineko igogailuak egokitzea
- Lanbidek eraikin nagusiko ekitaldi-espazioetan irisgarritasuna egiaztatzea

**Hirigintza/Parkea handitzea :**

- Hitzarmena Bilboko Udalarekin, Zorrotzaurreko Bilbo campusari buruzkoa . 133.000m<sup>2</sup> 4 lursailetan .
- Zamudio-Derio campusa handitzeko izapideak, erreserbako lursailei balioa emanez
- Ortuellako campusa sortzeko izapideak : Elikagaien Berrikuntzako Lehenengo Poloaren garapena
- Leioako campus zientifikoko hirigintza -tresnak aldatzea, bezero, proiektu estrategiko eta abarren etorrera errazteko

## Zerbitzu orokorrak

- Abantoko campuserako eta Zamudio -Derio (Geldo) campuserako CCTVzerbitzuaren lizitazioa
- Abantoko campuserako zaintza eta segurtasun zerbitzuaren lizitazioa



## ATALA

## 2022AN GARATUTAKO EKINTZAK

**Azpiegiturak eta eraikinak****Azpiegiturak eta Eraikinak :**

- A2.2 eraikinaren eraikuntzaren jarraipena
- Hernaniko campuseko eraikin berriaren proiektuaren lizitazioa
- Sormen Gela Parkeko Eraikin Nagusian
- Alberto Oraa gela digitala egokitzea

**Jasangarritasuna :**

- Instalazioak monitorizatzeko eta digitalizatzeko proiektu bat idazten hastea, Parkearen jabetzako azpiegitura guztietan energia-eraginkortasuna kudeatzeko
- Gipuzkoako Parke Teknologikoaren jabetzako eraikin guztiei auditoretza energetikoak egiten hastea
- Donostiako campuseko B2, B8, B9 eta A1.1 eraikinetan eguzki plaka fotovoltaikoak instalatzeko proiektuaren lizitazioa egin eta ezartzen hastea.
- Jasangarritasun-foroa sortzea (EPT\$)
- Eraikin Nagusian – B9, Eraikin Publikoak Birgaitzea Bultzatzeko Programan (PIREP) aipatutako jarduketak egiten hastea
- Diseinu eta eraikuntza jasangarriko irizpideak txertatzea Hernaniko campuseko eraikin berri baten diseinuan

**Mugikortasuna/Irsgarritasuna :**

- Mugikortasun Foroa sortzea
- Donostiako campusean dBizi puntua (udal bizikleta elektrikoa) ezartzeko bideragarritasun -azterlana
- Gure ibilgailuetarako karga-puntu bat ezartzea
- Garajeetan ibilgailu elektrikoetarako karga-puntu gehigarriak ezartzeko lizitazioa
- Ate lerragarriak dituzten atarien automatizazioa Parkeko B8, A11 eta A12 eraikinetan
- Lanbidek eraikin nagusiko ekitaldi -espazioetan irisgarritasuna egiaztatzea

**Hirigintza/Parkea handitzea :**

- Parkeak Gipuzkoan izan ditzakeen hedapen -kokapenen azterketa (Donostia campusa eta Hondarribia campusa)

**Zerbitzu orokorrak**

- Pergolak berritzeko lanak amaitzea eta argiak LEDera aldatzea
- B2 eraikineko estalkia konpontzea




### 03. Gogobetetasunari buruzko 2022ko inkestaren emaitzak




### 03.04 BEZEROEN EMAITZAK EPTS

2021eko puntuazioekin alderatuta, baloratutako arlo guztietan hobetu dira puntuazio -mailak, eta balioak bikaintasun - mailetan kokatu dira



Blokeen garrantziaren % 2022an




Gure bezeroen % 56,66k azpiegituri eta eraikinei ematen die lehentasuna, eta % 8,67k, berriz, zerbitzu orokorrei .  
Joera hori eraikina jabetzan duten bezeroengan zein Parkeen edo hirugarrenen jabetzako eraikinetan instalatutakoengan islatzen da.

	Enpresak alokairuan			Eraikina jabetzan duten enpresak	Orotarako %
	Hirugarrenen jabetzakoak	Parke aren jabetzakoak	Alokairuari buruzko datu globala		
ERABILTZAILEAK ARTATZE	% 0,00	% 23,53	% 19,05	% 15,56	% 18,00
AZPIEGITURAK ETA ERAIKINAK	% 60,00	% 47,06	% 49,52	% 73,33	% 56,66%
ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK	% 15,00	% 8,24	% 9,52	% 6,67	% 8,67
ZERBITZU OROKORRAK	% 25,00	% 21,18	% 21,90	% 4,44	% 16,67

## 03.02. Indarguneak eremuen arabera

### Araba




ARLOA: Erabiltzaileak artatzea (9,41)

### Gipuzkoa




ARLOA: Erabiltzaileak artatzea (9,27)

### RPTE



ARLOA: Erabiltzaileak artatzea (9,32)


### Bizkaia



ARLOA: Erabiltzaileak artatzea (9,26)


### 03.06. Hobetu beharreko arloak

#### Araba




ARLOA: Zerbitzu espezializatuak (8,54)

#### RPTE




AREA: Zerbitzu espezializatuak (8,40)

#### Gipuzkoa



ARLOA: Zerbitzu espezializatuak (8,03)



#### Bizkaia



ARLOA: Zerbitzu espezializatuak (8,30)

### 03.04 BEZEROEN EMAITZAK ARABA



Oro har, inkestaren arlo guztietan goranzko joera ikusten da 2021eko puntuazioekin alderatuta, alderdi guztiek 8,5etik gora puntuatzen dute. Gehien handitu den arloa Zerbitzu Orokorrera da (+0,63), eta nabarmen handitu da erabiltzailearentzako arreta (+0,25)



2021eko ekitaldiari dagokionez, gure bezeroek "Azpiegiturak eta Eraikinak" blokeari ematen dioten garrantzia nabarmen handitu da, "Zerbitzu Orokorrak eta Zerbitzu Espezializatuak" blokei lotutako alderdien kaltetan.


	Enpresak alokairuan			Eraikina jabetzan duten enpresak	Orotarako %
	Hirugarrenen jabetzakoak	Parke aren jabetzakoak	Alokairuari buruzko datu globala		
ERABILTZAILEAK ARTATZE	% 0,00	% 20,83	% 11,36	% 11,11	% 14,55
AZPIEGITURAK ETA ERAIKINAK	% 50,00	% 37,50	% 47,73	% 85,19	% 61,82
ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK	% 25,00	% 20,83	% 18,18	% 3,70	% 12,73
ZERBITZU OROKORRAK	% 25,00	% 20,83	% 22,73	% 0,00	% 10,91




GAIA	IRUZKINAK ETA IRADOKIZUNAK
 <p><b>Garraioa eta Mugikortasuna</b> (AIPAMEN 2)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parkearen eta Vitoria-Gasteizko hiriaren arteko komunikazioen – autobus -linearen – arazoa, mugatua baita oraindik .</li> <li>• PARKEak Parkekoak edo Gasteizkoak izan daitezkeen pertsoneri zerbitzuak eskaintzen dizkieten enpresen beharretara egokitzeko duen gaitasuna : garraioaren garrantzia (autobus bat jartzea orduro , adibidez) .</li> </ul>
 <p><b>Azpiegiturak</b> (AIPAMEN 1)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berogailua eta kanpo- eta barne-argia, ordutegi zehatzetan erabat ilunak diren eremuak argiztatzeko . Baigene-ren iritziz, oso garrantzitsua da pasabide guztietan argi FINKOA edukitzea, eta ez igarotzean pizten den argia, ingurune osoa ilunpetan baitago eta bezeroarentzat ez da irudi ona.</li> </ul>

### 03.06 BEZEROEN EMAITZAK BIZKAIA

Oro har, inkestaren arlo guztietan goranzko joera ikusten da 2021eko puntuazioekin alderatuta, alderdi guztiek 8tik gora puntuatzen dute. Gehien handitu den arloa Parkearen Izaera Berritzailearena da (+0,55), eta nabarmen handitu da Parkeko Zerbitzu Orokorrak arloak duen aintzatespena (+0,41)



Blokeen garrantziaren % 2022an








- ERABILTZAILERAK ARTATZEA
- AZPIEGITURAK ETA ERAIKINAK
- ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK
- ZERBITZU OROKORRAK




2021arekin alderatuta, igoera handia nabari da gure bezeroek "Azpiegiturak eta Eraikinak" blokeari ematen dioten garrantzian, "Zerbitzu Espezializatuak" blokearen kaltetan


	Enpresak alokairuan			Eraikina jabetzan duten enpresak	Orotarako %
	Hirugarrenen jabetzakoak	Parkearen jabetzakoak	Alokairuari buruzko datu globala		
ERABILTZAILERAK ARTATZE	% 0,00	% 14,29	% 13,24	% 16,67	% 12,50
AZPIEGITURAK ETA ERAIKINAK	% 83,33	% 53,57	% 50,00	% 50,00	% 57,50
ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK	% 0,00	% 3,57	% 11,76	% 16,67	% 5,00
ZERBITZU OROKORRAK	% 16,67	% 28,57	% 25,00	% 16,67	% 25,00

GAIA	IRUZKINAK ETA IRADOKIZUNAK
 <p><b>Balorazio positiboa</b> (AIPAMEN 2)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zorionak ematen dituzuen zerbitzuengatik . Parkearen bilakaera positiboa nabaritzen da.</li> <li>• Parkea gero eta gehiago da erreferentziazko erakundea, duen arretagatik, trakzioagatik eta dinamismoagatik . Zorionak!</li> </ul>
 <p><b>Aparkalekuak - Mugikortasuna</b> (AIPAMEN 1)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• APARKALEKUA KALTADIRA GURE INGURUAN.</li> </ul>
 <p><b>Zerbitzu espezializatuak</b> (AIPAMEN 1)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gure iritziz Parkeko talentuak azalera eta gizarteari horren berri amaten ahalegin handiagoa egin beharko litzateke ; zeren Parkean dagoen talentua ikaragarria baita eta gizarte ez baita horren jabe.</li> </ul>
 <p><b>Eraikinen seinaleztapena eta urbanizazioa hobetzea</b> (AIPAMEN 1)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tren geltokitik 101. eraikineraino doan bidea "Parkekoa" ez bada ere, eskertzekoa litzateke "Parketik" bidea espaloiarekin urbanizatzeko eskatzea. Berez, bide estua da eta neguan iluna . Gidariak presaka doaz (batzuk oraindik apur bat lokartuta), nahiko arriskutsua da bide horretatik ibiltzea . Izan ere, azaroaren 22an, auto batek emakume bat jo zuen. Parkeak lortu beharreko helburuetako bat garraio publikoa erabiltzea dela kontuan hartuta, autoaren erabilera murrizteko helburuz, interesgarria litzateke oinezkoari bidea erraztea, seguruago bihurtuz .</li> </ul>
 <p><b>Besterik</b> (AIPAMEN 1)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mesedez, hurrengo inkestetan eman ezazue lehenengo eta azken galderetan aukera bat baino gehiago gaitzeko aukera .</li> </ul>

### 03.08 BEZEROEN EMAITZAK GIPUZKOA



Blokeen garrantziaren % 2022an







- ERABILTZAILEAK ARTATZEA
- AZPIEGITURAK ETA ERAIKINAK
- ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK
- ZERBITZU OROKORRAK

Gure bezeroek "**Azpiegiturak eta Eraikinak**" blokeari, gainerako blokeen aldean, ematen dioten garrantzia nabarmentzekoa da

	Enpresak alokairuan			Eraikina jabetzan duten enpresak	Orotarako %
	Hirugarrenen jabetzakoak	Parkearen jabetzakoak	Alokairuari buruzko datu globala		
ERABILTZAILEAK ARTATZE	% 0,00	% 33,33	% 21,05	% 25,00	% 25,45
AZPIEGITURAK ETA ERAIKINAK	% 50,00	% 48,48	% 47,37	% 58,33	% 50,91
ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK	% 20,00	% 3,03	% 9,47	% 8,33	% 7,27
ZERBITZU OROKORRAK	% 30,00	% 15,15	% 22,11	% 8,33	% 16,36

Eremu guztietako puntuazioak altuak edo oso altuak dira, eta beti 10/08tik gorakoak, nahiz eta oso esanguratsuak ez diren jaitsiera batzuk egiaztatu diren Zerbitzu Espezializatu, Parkearen Izaera Berritzailean eta Gogobetetze Orokorraren balorazioan

GAIA	IRUZKINAK ETA IRADOKIZUNAK
 <p><b>Balorazio positiboa</b> (AIPAMEN 2)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Oso pozik gaude parkean eta eraikin nagusian jasotzen dugun arretarekin . Bereziki egokia zaigu kokapena, autobusen erabilgarritasuna, jatetxe - eskaintza .</li> <li>Oro har, pozik gaude, harremana oso ona, adeitsua eta profesionala da hona iritsi ginenetik . Lekua zoragarria da, gero eta eraikin berri gehiago eta enpresa gehiago ikusten ditut, eta hori albiste bikaina da, lurraldean aberastasuna sortzen duelako .</li> </ul>
 <p><b>Mugikortasuna - Sarbideak</b> (AIPAMEN 2)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Garraio publikoa Parkearen amaieraraino iristea eta aparkaleku kopurua hobetuko genituzke, agian ohiko langileei erraztasunak eskainiz bisitarietzako espazioak aska ditzaten .</li> <li>Alokatutako aparkalekuetan auto elektrikorako karga-puntuak jartzea gustatuko litzaiguke, badakizue zein den gure eskaria, baina egia esan konponbidea astiro dator .</li> </ul>
 <p><b>Azpiegituraki eta Eraikinak</b> (6 AIPAMEN)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Garajeak oso zikinak eta zaindu gabeak orokorrean .</li> <li>Leku falta dago eta horrek hazteko aukerak mugatzen ditu .</li> <li>Garrantzitsua da Parkek alokairu prezio baxuak izatea, enpresa berriak erakartzen jarraitzeko eta oraingok bertan jarrai dezaten .</li> <li>Uste dut lorezaintza eta kaleetako asfaltoaren egoera nahiko hondatuta daudela, eta horrek eragina du irudian . Udalaren eskumenekoak direla uste dut, oker ez banago, hala ere, ohar hori helaraz diezaikezue .</li> <li>Badira denboraren joana salatzen duten alderdi batzuk: klimatizazio eskasa, ondo ez dabilzan errezelak eta estoreak . Eta urbanizazioan baldosa hautsiak, putzuak, lizuna fatxadetan, eta logikoa den higadura orokorra, parkearen adina eta aurrekonturik uzten ez duten krisi egoera kateatuak direla eta .</li> </ul>
 <p><b>Zerbitzu osagarriak</b> (AIPAMEN 1)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Idea ona litzateke, halaber, Parkeak haurtzaindegi -zerbitzuren bat izatea, eta bertako ostalaritzari iradoki diezaikezue topaketak antola ditzatela ostiraletan edo hilean ostiral batean, kafiña edo kafe batzuk prezio berezietan hartzeko, Parkeko enpresetako langileak anima daitezen eta <i>networking</i> gehiago sor dadin .</li> </ul>

04.  
2022ko ondorioak  
2023rako ekintza  
plana



## ONDORIOAK

**Ondorio nagusia: bilakaera positiboa eremu guztietan eta gogobetetze handia, 8tik gorakoa, bai hiru parkeetan, bai lurraldeka.**

**-maila**

- Enpresa gutxi erantzun dituzte inkestak hiru lurraldeetan, eta erantzun bereziki eskasa izan da Bizkaiko Parkearen kasuan.
- Nabarmen igo da enpresek Azpiegiturak eta Eraikinak blokeari ematen dioten garrantzia, Zerbitzu Espezializatuen eta Zerbitzu Orokorren blokeari ematen dietenaren aldean.
- Identifikatutako indarguneetan bat datoz hiru Parkeak eta lurraldeak : Parkeetako langileen zerbitzu- eta lankidetzak -jarrera, Auditorioa eta Gelak Alokatzeko Zerbitzua, Ingurunea euren enpresarentzat egokia izatea. Arabako elur-zerbitzua eta Bizkaiko eta Gipuzkoako zaintza-zerbitzua indargune garrantzitsuak dira lurralde horietan .
- 3 lurraldeei dagokienez, balorazio txikiena jaso duen itema, hala ere, 10/8 puntutik gora jaso duena Sare Sozialei dagokiena da.
- Lurralde bakoitzean berezitasunak baditu ere, inkestetako oharretan iradokizunen bat edo hobekuntza -ekintzaren bat ematen da mugikortasunaren (garraioa), aparkalekuen, eraikinen urbanizazioaren/seinaleztapenaren/argiztapenaren arloan, eta instalazio edo ekimen gehigarrien bat proposatzen da (haurtzaindegia, Networking Antolaketa ostiraletan) .
- Azpimarratzekoa da jasotako 20 oharretatik 4 Parkeei zorianak emateko direla .

## EKINTZA PLANA

**Inkesta honen ondoriozko Ekintza Plana EPTsren 2024 Plan Estrategiko berriaren barruan kokatuko da. Bultzatu beharreko ekintza estrategikoak:**

- Oro har, 3 lurraldeetan jasotako erantzunen adierazgarritasuna handitzea. Hainbat formula aztertzea (telefono bidezko inkestak, jarraipenaren hobekuntza, etab.).
- 2023an, bezeroei eskaintzen zaien arreta eta entzutea indartzen jarraitu beharko da, haien beharrei erantzutea edo gorabeherak konpontzea ahalbidetuko duten ohiko bisita eta bileren bidez.
- Parkeetara datozen edo jada instalatuta dauden enpresa berrientzako Harrera/ Birrarrera protokoloa aktibatzea, babestuak senti dezaten, artatuak eta eskura dituzten zerbitzu eta ekosistema guztiak ezagut ditzaten .
- Zerbitzuen proposamen berri bat diseinatzea BeParke ekimenaren barruan (kirol eta gizarte arloko ekimenak), zerbitzu horiek Parkeetarako beste modu batean antolatu eta egituratu ahal izateko. Proposamen irabazlearen lizitazioa eta 2023an abian jartzea .
- Jasangarritasun, Mugikortasun eta Irisgarritasun Planean aurreikusitako ekintzek aurrera egiten jarraitzea, eremu horiek hobetzeko .
- Zerbitzu bereizgarriak sustatzen jarraitzea : BeParke, K·business, K·talent, K·impulse, K·media eta K·future, kalitatezko proposamenak eskainiz, parte hartzen duen enpresa kopuruan inpaktu handiagoa lortzeko eta balorazio onak izaten jarraitzeko .
- Ezarritako komunikazio -politikari eustea eta indartzea, eskaintako zerbitzuei eta jarduerari balioa emateko komunikazio -ekintzen bitartez, eta gure bezeroen proiektuak ikusarazteko .



### ONDORIOAK

- Enpresen gogobetetze -maila orokorra 10/8,93koa eta % 94koa da (2021ean, % 75ekoa). Egindako galderen puntuazioa 8,5etik gorakoa da.
- Aurreko ekitaldian baino puntuazio handiagoa lortu duen atala "Erabiltzaileak artatzea" atala izan da, hau da, telefono bidezko arreta, adeitasuna/lankidetzeta -jarrera, azkartasuna eta eraginkortasuna, etab. Bestalde, zerbitzu zehatzagoei dagokienez, 2021ean Parkean ireki zen jatetxe berriaren balorazioa hobetu egin da, baita autobus zerbitzuarena ere, balorazio txarrena jaso duen itema bada ere (10/6,34), puntuazioa % 7,4 hobetu baitu 2021arekin alderatuta .
- Parkerako mugikortasunak, Gasteizera joatea eta etortzea, hobetzeko lan-eremua izaten jarraitzen du, inkesten emaitzetatik eta gai horri buruz jasotako aipamenetik ondorioztatzen denez.
- Aretoen okupazioa mantendu egin da aurreko urtearen aldean eta 8,5 puntuko bikaintasun -mailatan .

### EKINTZA PLANA

- Bezeroek galdetegietan helarazitako iradokizunei eta hobekuntzei erantzutea eta hiru hilean behin erregistratutako hobekuntza -arloan jarraipena egitea .
- Item (galdera) batean 6 puntu edo gutxiago eman dituzten enpresa guztiekin harremanetan jartzea, arrazoiak eta egin litezkeen hobekuntzak identifikatzeko .
- Parkerako mugikortasuna hobetzeko lanean jarraitzea, PSMAUren Ekintza Planean oinarrituta eta Vitoria -Gasteizko Mugikortasun Planarekin lankidetzan
- Ibilgailu elektrikoetarako karga-puntuen ezarpena bultzatzea, mugikortasun jasangarria sustatze aldera .
- Zerbitzuen proposamen berri bat diseinatzea BeParke ekimenaren barruan, Arabako Parkerako berariaz (kirol eta gizarte arloko ekimenak) . Proposamen irabazle lizitatzea eta 2023an abian jartze .

### ONDORIOAK

- Balorazio gehienak 8tik gorakoak dira, eta bloke guztiek hobetu dute puntuazioa 2021arekin alderatuta .
- Enpresa gutxik erantzun dizkiete inkestei, % 14,18k baino ez. Laginaren adierazgarritasuna eta, beraz, lortutako emaitzak zalantzan jartzen ditu erantzun eskas horrek .
- Item guztietatik gutxien baloratzen den alderdia aparkalekua da; hala ere, eremu hori hobetzeko lanean ari gara, eta horren ondorioz, urtez urte balorazioak hobetzen ari dira, 2018ko 5,91tik egungo 7,24raino .
- K-Impulse (10/7,86) eta K-Future (10/7,86) zerbitzu espezializatuek zertxobait jaitsi dute puntuazioa .
- Aretoen okupazioa berriro ere covid aurreko erabilera -dinamikara itzuli da, hau da, okupazioa % 31 igo da, eta asistentzia % 96, 2021arekin alderatuta . Nabarmentzekoa da auditorioa % 86 igo dela okupazioan, neuri handi batean 2021aren amaieran egindako birmoldaketa lanen ondorioz ; izan ere, lan horiei esker, espazioa fisikoki eta teknologikoki eguneratu zen, eta askoz erakargarriagoa bihurtu . Zerbitzu horrek jaso duen balorazioa bikaina da.

### EKINTZA PLANA

- Jasotako erantzunen adierazgarritasuna handitzea . Hainbat formula aztertzea (telefono bidezko inkestak, jarraipenak hobetzea, etab.)
- Bezeroek galdetegietan helarazitako iradokizunei eta hobekuntzei erantzutea eta hiru hilean behin erregistratutako hobekuntza -arloan jarraipena egitea .
- Item (galdera) batean 6 puntu edo gutxiago eman dituzten enpresa guztiekin harremanetan jartzea, arrazoia eta egin litezkeen hobekuntzak identifikatzeko .
- Parkerako mugikortasuna hobetzeko lanean jarraitzea, PSMAUren Ekintza Planean oinarrituta
- Ibilgailu elektrikoetarako karga-puntuen ezarpena bultzatzea, mugikortasun jasangarria sustatze aldera .
- Zerbitzuen proposamen berri bat diseinatzea BeParke ekimenaren barruan, Bizkaiko Parkerako berariak (kirol eta gizarte arloko ekimenak) . Proposamen irabazlea lizitatzea eta 2023an abian jartzea .
- K · Impulse eta K · Future zerbitzu espezializatuen puntuazioa zergatik jaitsi den aztertzea .

### ONDORIOAK

- Enpresen gogobetetze -maila orokorra oso altua da eta 10/8,67raino iritsi da. Item gehienek 8tik gorako puntuazioa dute .
- Oro har, Zerbitzu Espezializatuekin lotutako puntuazioek beherakada txikia izan dute, eta K-Impulse arloko zerbitzuak izan dira puntuazio txikiena lortu dutenak (10/7,67).
- Azpimarratzekoa da, bereziki, 10/9,43 puntuazioa, guztietan altuena, langileen adetasunari/lankidetzaren jarrerari dagokionez .
- Aretoen okupazioak % 4 egin du gora, baina asistentzia % 18 jaitsi da 2021ekoaren aldean. Azpimarratzekoa da covid osteko fasean auditoriumaren erabilera areagotu egin dela, baita Alberto Oraa gelan, Sormen Gelan eta 11-12 geletan egindako birmoldaketa ere, guztiak igaro baitira teknologia digitalera . Zerbitzu horrek jaso duen balorazioa bikaina da.

### EKINTZA PLANA

- Bezeroek galdetegietan helarazitako iradokizunak, oharrak eta hobekuntzak erregistratzea . Erregistratutako hobekuntza -arloak aztertzea, bezeroekin harremanetan jartzea eta hiru hilean behin jarraipena egitea .
- Item (galdera) batean 6 puntu edo gutxiago eman dituzten enpresa guztiekin harremanetan jartzea, arrazoia eta egin litezkeen hobekuntzak identifikatzeko eta horien jarraipena egiteko erregistroak egiteko .
- Ibilgailu elektrikoetarako karga-puntuen ezarpena bultzatzea, mugikortasun jasangarria sustatze aldera .
- Zerbitzuen proposamen berri bat diseinatzea BeParke ekimenaren barruan, Gipuzkoako Parkerako berariaz (kirol eta gizarte arloko ekimenak) . Proposamen irabazlea lizitatzea eta 2023an abian jartzea .
- Zerbitzu Espezializatuari buruzko puntuazioen jaitiera orokor txikiaren jatorria aztertze .

05.

**ERANSKINA:**

**Emaitza zehatzak**



# 05.01. Emaita zehatzak - EPTS

	Laginaren ehunekoa		
	% 34,98 2020	% 31,84 2021	% 24,27 2022
<b>1- ERABILTZAILEAK ARTATZEA</b>	<b>9,22</b>	<b>9,16</b>	<b>9,32</b>
1 - TELEFONO BIDEZKO ARRETA ETA LANGILEEN ERANTZUNA	9,17	9,13	9,36
2 - LANGILEEN ADEITASUNA/LANKIDETZARAKO JARRERA	9,36	9,38	9,51
3 - LANGILEEN AZKARTASUNA ETA ERAGINKORTASUNA	9,00	9,06	9,21
4 - LANGILEEN ARRETA EUSKARAZ	9,35	9,06	9,19
<b>2- AZPIEGITURAK ETA ERAIKINAK</b>	<b>8,51</b>	<b>8,64</b>	<b>8,75</b>
5 - ERAIKINAK ETA HAIEN INSTALAZIOAK	8,35	8,57	8,47
6 - AUDITORIOA ETA BILERGELAK	8,80	8,92	8,87
7 - ERAIKINAK SEINALEZTATZEA	8,09	8,31	8,65
8 - URBANIZAZIOA SEINALEZTATZEA (SARBIDEAK ETA BARRUALDEA)	8,10	8,31	8,57
9 - PARKEAREN KONTSERBATIO EGOERA OROKORRA	8,66	8,73	8,79
10 - INGURUNEA ZURE ENPRESARAKO EGOKIA IZATEA	9,04	9,01	9,15
<b>3- ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK</b>	<b>8,14(*)</b>	<b>8,22(*)</b>	<b>8,40</b>
11 - BEParke - Parkeak bizi-ekosistema izan daitezen garatzeko zerbitzuak eta espazioak (kirol, kultura eta gizarte arloko ekimenak, Parkerako Erronka, etab.)	7,79	7,80	8,45
11.1 - AUDITORIOA ETA BILERGELAK ALOKATZEKO ZERBITZUA	8,98	9,02	9,00
12 - K-BUSINESS Topaguneak sortuz, Parke enpresei beste enpresa eta funtsezko eragile batzuekin harremanak izaten laguntzen dieten zerbitzuak, negozioa gara dezaten	8,10	8,15	8,39
13 - K-TALENT- Parkera giza kapitala erakartzen laguntzen duten eta garapen profesionalaren eta bokazio zientifikoen teknologikoen sustapenaren bidez gure enpresen talentua fidelizatzen duten zerbitzuak	7,90	8,11	8,30
14 - K-IMPULSE- Parke ekosistemako enpresei hazten, finantzaketa eskuratzen, merkatura arrakastaz iristen edo merkatu berrietara iristen laguntzen dieten zerbitzuak	8,31	8,43	8,20
15 - K-FUTURE- Topaguneak sortuz, Parke enpresei aldaketa teknologikoei aurrea hartzen laguntzen dieten zerbitzuak (Teknologia Disruptiboak)	8,31	8,43	8,28
16 - K-MEDIA- Gure enpresei merkatuan posizionatzen eta mundu hiperkonektatu honetan bazkide, bezero eta lehiakide posibleekin kontaktatzen laguntzen dieten komunikazio zerbitzuak	8,61	8,61	8,31
16.1 - WEB ORRIA (www.parke.eus)	8,48	8,63	8,43
16.2 - EUSKOTEK ALDIZKARIA	8,43	8,37	8,40
16.3 - ENPRESA BULETINA	8,40	8,45	8,50
16.4 - SARE SOZIALAK (Facebook, Twitter, Youtube, RSS)	8,15	8,37	8,17
<b>4- ZERBITZU OROKORRAK</b>	<b>8,61(*)</b>	<b>8,64(*)</b>	<b>8,88</b>
17 - PARKE TEKNOLOGIKOAREN HARRERA	8,99	9,05	9,20
18 - SEGURTASUNA ETA ZAINZA	8,87	8,86	9,02
19 - MANTENTZELANAK ETA GORABEHEREN KUDEATZEA	8,78	8,75	8,83
20 - TELEKOMUNIKAZIOAK (ZUNTZ OPTIKOA, WIFI, i2Basque, EDUROAM...)	8,46	8,27	8,45
<b>5- PARKEAREN IZAERA BERRITZAILA</b>	<b>8,47</b>	<b>8,62</b>	<b>8,75</b>
<b>ASEBETETZE OROKORRA</b>	<b>8,65</b>	<b>8,78</b>	<b>8,80</b>

**Oharra:** 2021arekin alderatuta 0,5 puntutik gorako igoera izan duten itemak berdez marraztu dira .

## 05.02. Emaidza zehatzak - ARABA

	Laginarene ehunekoa		
	% 50,00	% 52,50	% 34,81
	2020	2021	2022
<b>1- ERABILTZAILAK ARTATZEA</b>	<b>9,12</b>	<b>9,16</b>	<b>9,41</b>
1 - TELEFONO BIDEZKO ARRETA ETA LANGILEEN ERANTZUNA	9,04	9,13	9,43
2 - LANGILEEN ADEITASUNA/LANKIDETZARAKO JARRERA	9,44	9,44	9,53
3 - LANGILEEN AZKARTASUNA ETA ERAGINKORTASUNA	9,00	9,08	9,46
4 - LANGILEEN ARRETA EUSKARAZ	9,00	8,97	9,21
<b>2- AZPIEGITURAK ETA ERAIKINAK</b>	<b>8,83</b>	<b>8,88</b>	<b>9,08</b>
5- URBANIZAZIOA	8,98	8,97	8,85
6 - ERAIKINAK ETA INSTALAZIOAK	8,59	8,76	8,61
7 - AUDITORIOA ETA BILERAGELAK	9,05	8,95	9,11
8 - ERAIKINAK SEINALEZTATZEA	8,60	8,69	9,21
9 - URBANIZAZIOA SEINALEZTATZEA (SARBIDEAK ETA BARRUALDEA)	8,55	8,46	9,05
10 - APARKALEKUAK	8,82	9,03	9,11
11 - ELURRA KENTZEKO ZERBITZUA	8,99	8,98	<b>9,51</b>
12 - PARKEAREN KONTSERBAZIO EGOERA OROKORRA	8,94	9,08	9,02
13 - INGURUNEA ZURE ENPRESARAKO EGOKIA IZATEA	8,93	9,05	9,27
<b>3- ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK</b>	<b>8,13(*)</b>	<b>8,41(*)</b>	<b>8,54</b>
14 - BEParke - Parkeak bizi-ekosistema izan daitezen garatzeko zerbitzuak eta espazioak (kirol, kultura eta gizarte arloko ekimenak, Parkerako Erronka, etab.)	7,88	8,18	8,96
14.1 - AUDITORIOA ETA BILERAGELAK ALOKATZEKO ZERBITZUA	9,03	9,13	9,16
14.2 – AUTOBUS ZERBITZUA	6,20	5,90	6,34
14.3 – JATETXE ZERBITZUA	3,66	7,79	<b>8,63</b>
15 - K-BUSINESS Topaguneak sortuz, Parke enpresei beste enpresa eta funtsezko eragile batzuekin harremanak izaten laguntzen dieten zerbitzuak, negozioa gara dezaten	8,11	8,42	8,68
16- K-TALENT- Parkera giza kapitala erakartzen laguntzen duten eta garapen profesionalaren eta bokazio zientifiko-ekosistemaren bidez gure enpresen talentua fidelizatzen duten zerbitzuak	7,91	8,10	<b>8,68</b>
17- K-IMPULSE- Parke ekosistemako enpresei hazten, finantzaketa eskuratzen, merkatura arrakastaz iristen edo merkatu berrietara iristen laguntzen dieten zerbitzuak	8,25	8,64	8,72
18- K-FUTURE Topaguneak sortuz, Parke enpresei aldaketa teknologikoei aurrea hartzen laguntzen dieten zerbitzuak (Teknologia Disruptiboak)	8,25	8,64	8,73
19- K-MEDIA - Gure enpresei merkatuan posizionatzen eta mundu hiperkonektatu honetan bazkide, bezero eta lehiakide posibleek prokomunikazio -zerbitzuak	8,51	8,72	8,70
19.1 WEB ORRIA	8,49	8,64	8,60
19.2 EUSKOTEK ALDIZKARIA	8,35	8,44	8,82
19.3 ENPRESA BULETINA	8,24	8,58	8,67
19.4 SARE SOZIALAK (Instagram, Facebook, Twitter eta Youtube)	8,04	8,41	8,35
<b>4- ZERBITZU OROKORRAK</b>	<b>8,02(*)</b>	<b>8,43(*)</b>	<b>9,06</b>
20 - PARKE TEKNOLOGIKOAREN HARRERA	8,98	9,05	9,40
21 - SEGURTASUNA ETA ZAINZTA	9,18	9,30	9,44
22 - MANTENTZELANAK ETA GORABEHEREN KUDEATZEA	8,84	8,91	8,93
23 - TELEKOMUNIKAZIOAK (ZUNTZ OPTIKOA, WIFI, i2Basque, EDUROAM...)	8,24	8,23	8,49
<b>5- PARKEAREN IZAERA BERRITZAILA</b>	<b>8,34</b>	<b>8,79</b>	<b>8,87</b>
<b>ASEBETETZE OROKORRA</b>	<b>8,68</b>	<b>8,90</b>	<b>8,93</b>

## 05.03. Emaiza zehatzak - BIZKAIA

	Laginarene ehunekoak		
	% 28,93	% 25,45	% 14,18
<b>1- ERABILTZAILEAK ARTATZEA</b>	<b>9,24</b>	<b>9,03</b>	<b>9,26</b>
1 - TELEFONO BIDEZKO ARRETA ETA LANGILEEN ERANTZUNA	9,17	9,00	9,30
2 - LANGILEEN ADEITASUNA/LANKIDETZARAKO JARRERA	9,32	9,24	9,58
3 - LANGILEEN AZKARTASUNA ETA ERAGINKORTASUNA	9,05	8,91	8,95
4- LANGILEEN ARRETA EUSKARAZ	9,43	8,97	9,21
<b>2- AZPIEGITURAK ETA ERAIKINAK</b>	<b>8,25</b>	<b>8,23</b>	<b>8,34</b>
5- URBANIZAZIOA	8,66	8,43	8,40
6 - ERAIKINAK ETA INSTALAZIOAK	8,16	8,38	8,54
7 - AUDITORIOA ETA BILERAGELAK	8,68	8,85	8,81
8 - ERAIKINAK SEINALEZTATZEA	7,88	7,66	7,87
9 - URBANIZAZIOA SEINALEZTATZEA (SARBIDEAK ETA BARRUALDEA)	7,93	7,98	7,89
10 - APARKALEKUAK	6,94	7,04	7,24
11 - PARKEAREN KONTSERBAZIO EGOERA OROKORRA	8,60	8,48	8,83
12 - INGURUNEA ZURE ENPRESARAKO EGOKIA IZATEA	9,12	9,05	9,18
<b>3- ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK</b>	<b>8,22(*)</b>	<b>7,94(*)</b>	<b>8,30</b>
13 - BEParke - Parkeak bizi-ekosistema izan daitezen garatzeko zerbitzuak eta espazioak (kirol, kultura eta gizarte arloko ekimenak, Parkerako Erroka, etab. )	7,81	7,31	8,45
13.1 - AUDITORIOA ETA BILERAGELAK ALOKATZEKO ZERBITZUA	8,96	8,98	9,21
14 - K-BUSINESS Topaguneak sortuz, Parke enpresei beste enpresa eta funtsezko eragile batzuekin harremanak izaten laguntzen dieten zerbitzuak , negozioa gara dezaten	8,18	7,75	8,61
15 - K-TALENT- Parkera giza kapitala erakartzen laguntzen duten eta garapen profesionalaren eta bokazio zientifiko -teknologikoen sustapenare n bidez gure enpresen talentua fidelizatzen duten zerbitzuak	7,98	8,00	8,35
16- K-IMPULSE- Parke ekosistemako enpresei hazten, finantzaketa eskuratzen, merkatura arrakastaz iristen edo merkatu berrietara iristen lagu ntzen dieten zerbitzuak	8,41	8,12	7,86
17 - K-FUTURE- Topaguneak sortuz, Parke enpresei aldaketa teknologikoei aurrea hartzen laguntzen dieten zerbitzuak (Teknologia Disruptiboak)	8,41	8,12	7,86
18 - K-MEDIA- Gure enpresei merkatuan posizionatzen eta mundu hiperkonektatu honetan bazkide, bezero eta lehiakide posibleek positiboki aintzatesten laguntzen dieten komunikazio -zerbitzuak	8,70	8,50	8,07
18.1 WEB ORRIA	8,47	8,46	8,50
18.2 EUSKOTEKALDIZKARIA	8,50	8,24	8,00
18.3 ENPRESA BULETINA	8,57	8,20	8,23
18.4 SARE SOZIALAKI(Instagram , Facebook, Twitter eta Youtube)	8,00	8,13	8,20
<b>4- ZERBITZU OROKORRAK</b>	<b>8,61(*)</b>	<b>8,46(*)</b>	<b>8,87</b>
19 - PARKE TEKNOLOGIKOAREN HARRERA	9,14	9,08	9,41
20 - SEGURTASUNA ETA ZAINZA	8,73	8,42	8,53
21 - MANTENTZELANAK ETA GORABEHEREN KUDEATZEA	8,67	8,49	8,89
22 - TELEKOMUNIKAZIOAK (ZUNTZ OPTIKOAWIFI, i2Basque, EDUROAM...)	8,48	8,13	8,66
<b>5- PARKEAREN IZAERA BERRITZAILERA</b>	<b>8,50</b>	<b>8,34</b>	<b>8,89</b>
<b>ASEBETETZE OROKORRA</b>	<b>8,63</b>	<b>8,60</b>	<b>8,85</b>



	Laginararen ehunekoa		
	% 34,69 2020	% 27,65 2021	% 30,90 2022
<b>1- ERABILTZAILEAK ARTATZEA</b>	<b>9,26</b>	<b>9,31</b>	<b>9,27</b>
1 - TELEFONO BIDEZKO ARRETA ETA LANGILEEN ERANTZUNA	9,30	9,30	9,33
2 - LANGILEEN ADEITASUNA/LANKIDETZARAKO JARRERA	9,35	9,46	9,43
3 - LANGILEEN AZKARTASUNA ETA ERAGINKORTASUNA	8,94	9,20	9,14
4 - LANGILEEN ARRETA EUSKARAZ	9,47	9,29	9,16
<b>2- AZPIEGITURAK ETA ERAIKINAK</b>	<b>8,40</b>	<b>8,68</b>	<b>8,61</b>
5 - ERAIKINAK ETA HAIEN INSTALAZIOAK	8,36	8,53	8,28
6 - AUDITORIOA ETA BILERAGELAK	8,71	8,98	8,64
7 - ERAIKINAK SEINALEZTATZEA	7,90	8,60	8,66
8 - URBANIZAZIOA SEINALEZTATZEA (SARBIDEAK ETA BARRUALDEA)	7,92	8,51	8,54
9 - PARKEAREN KONTSERBATIO EGOERA OROKORRA	8,48	8,54	8,54
10 - INGURUNEA ZURE ENPRESARAKO EGOKIA IZATEA	9,06	8,91	9,00
<b>3- ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK</b>	<b>8,05(*)</b>	<b>8,29(*)</b>	<b>8,03</b>
11 - BEParke - Parkeak bizi-ekosistema izan daitezen garatzeko zerbitzuak eta espazioak (kirol, kultura eta gizarte arloko ekimenak, Parkerako Erronka, etab. )	7,67	7,89	7,77
11.1 - AUDITORIOA ETA BILERAGELAK ALOKATZEKO ZERBITZUA	8,94	8,94	8,68
12 - K-BUSINESS Topaguneak sortuz, Parke enpresei beste enpresa eta funtsezko eragile batzuekin harremanak izaten laguntzen dieten zerbitzuak , negozioa gara dezaten	7,98	8,24	7,83
13 - K-TALENT- Parkera giza kapitala erakartzen laguntzen duten eta garapen profesionalaren eta bokazio zientifiko -teknologikoen sustapenare n bidez gure enpresen talentua fidelizatzen duten zerbitzuak	7,80	8,29	7,76
14 - K-IMPULSE- Parke ekosistemako enpresei hazten, finantzaketa eskuratzen, merkatura arrakastaz iristen edo merkatu berrietara iristen lagu ntzen dieten zerbitzuak	8,21	8,49	7,67
15 - K- FUTURE- Topaguneak sortuz, Parke enpresei aldaketa teknologikoei aurrea hartzen laguntzen dieten zerbitzuak (Teknologia Disruptiboak)	8,21	8,49	7,92
16 - K-MEDIA - Gure enpresei merkatuan posizionatzen eta mundu hiperkonektatu honetan bazkide, bezero eta lehiakide posibleek positiboki aintzatesten laguntzen dieten komunikazio -zerbitzuak	8,59	8,57	7,90
16.1 WEB ORRIA	8,48	8,86	8,18
16.2 EUSKOTEKALDIZKARIA	8,41	8,45	8,20
16.3 ENPRESA BULETINA	8,31	8,59	8,43
16.4 SARE SOZIALAKI(Instagram , Facebook, Twitter eta Youtube)	8,54	8,60	7,94
<b>4- ZERBITZU OROKORRAK</b>	<b>8,63(*)</b>	<b>8,73(*)</b>	<b>8,68</b>
17 - PARKE TEKNOLOGIKOAREN HARRERA	8,79	9,00	8,83
18 - SEGURTASUNA ETA ZAINZTA	8,76	8,79	8,94
19 - MANTENTZELANAK ETA GORABEHEREN KUDEATZEA	8,88	8,84	8,70
20 - TELEKOMUNIKAZIOAK (ZUNTZ OPTIKO/WIFI, i2Basque, EDUROAM...)	8,64	8,50	8,26
<b>5- PARKEAREN IZAERA BERRITZAILA</b>	<b>8,57</b>	<b>8,74</b>	<b>8,52</b>
<b>ASEBETETZE OROKORRA</b>	<b>8,66</b>	<b>8,83</b>	<b>8,67</b>



Un gran equipo  
a tu servicio